

03/09/2009

Bakearen Museoa "Balioak jolasen bidez ikasten"

Museoko tailer didaktikora taldean iritsi ostean, lurrean jesarri eta bezperan egin zutena kontatuko diete sei eta hamar urte bitarteko umeek Idoia Orbe Bakearen Museoko arlo didaktikoko arduradunari. Ondoren taldean moldatzen jakiteak duen garrantzia ikasteko zenbait jolas kooperatibo landuko dituzte.

Bakearen Museoko udalekuen helburu nagusia umeen zein hauen gurasoen artean bakearen kultura zabaltzea eta balioak lantzea da.

Horretarako, atzo Hiroshimako (Japonia) bonbardaketaren ostean ume bati, Sadakori, gertatutakoa kontatu zien Orbek umeei. Hiroshiman jaurtitako bonba nuklearraren eraginez, Sadakok leuzemia gaixotasuna pairatuko du. 11 urterekin, ospitalean dagoela, sendatzeko 1.000 kurrilo egin behar dituela sinetsi, eta hauek egiteari ekingo dio umeak. Sadako 644 kurrilo egin ostean hilko da. Istorioa entzun ostean, umeek Sadakoren eta bakearen omenez kurriloak egiteari ekingo diote.

Hiru ordu irauten duten udalekuetan ez dago atsedenaldirik. Txoko ezberdinetan jolastu ostean, Pablo Picassoren eta 'Guernica' koadroaren nondik norakoak ezagutzeko txanda da.

Udalekuekin gustura

Aspaldian ari ziren Bakearen Museokoak udalekuak antolatu guran. Uztailen umeentzako aisialdi eskaintza zabala zegoela iritzita, iraileko lehen astea aukeratu dute udalekuen data legez.

Berez bi talde sortzekoak ziren, sei eta hamar urte bitartekoena goizez, eta 11 eta hamalau urte bitartekoena arratsaldez. Azken talde horretan ez du behar den beste jendek izena eman eta bertan behera gelditu da. Txikiei dagokienez, plaza guztiak bete dira, hamabost guztira. Lehenengo egunetan udalekuek izan duten harrera ikusita oso gustura gaude, eta datozeen urteetan ere berau antolatzeko asmoa dugu, adierazi du Orbek.